

## Familia bat Gernikan

Bonbardeaketan  
izan ziren  
1937ko  
apirilean ▶ 4-5



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Ostirala ▶ 2007-06-29 ▶ V. urtea ▶ 1.199. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Alde Zaharrean erosita pintxoa eta ardoa opari

**TOLOSA ▶** Alde Zaharra sustatzeko helburuz egitasmoa abiarazi dute Alde Zaharrak dendak eta Ezpeleta ostalaritza elkarteak biharko ▶ 3

TOLOSALDEA-  
LEITZALDEA ▶

«Presoen  
eskubideen  
alde», gaur

Elkarretaratzeak,  
Etxeretek deituta ▶ 6



## Atzo protagonistak izan ondoren, haurrek koadrilei emango diete lekukoa

**ASTEASU ▶** Sanpedroetan bete-beterik daude eskualdeko hainbat herri. Herriko jaiak ospatzen hasten lehenak asteasuak izan dira, atzo ekin baitzieten haurren egunarekin. Askotariko jolasak egin zituzten herriko gaztekoen eta gaur koadrilen eguna izango dute. ASIER IMAZ ▶ 6

TOLOSA ▶

## Topaguneak Uda Gaztea programa jarri du martxan

Hainbat ekitaldi uztailean zehar ▶ 2

**RAMON LASA ▶**  
ALBIZTURKO ALKATEA

«Etxebizitza  
librea ez  
dute bultzatu  
behar udalek»

Erronkarik handiena  
etxebizitza da Lasa  
gaztearentzat ▶ 7



Goitik behera, Lasa eta Ugarte.

**JUAN UGARTE ▶**  
BIDEGOINGO ALKATEA

«Liburutegia  
eta ludoteka  
egin behar  
ditugu»

Arau berriztatzaileen  
lehen pausoa onetsi  
dutela azaldu du ▶ 7

Irurako 5.

**Garagardo**  
azoka

Irurako  
kastola

ekainak 29, 30 eta uztailak 1

AISIA ▶

# Uda Gaztea abiarazi du Topaguneak

Uztailaren 4tik 13ra hainbat ekitaldi izango dituzte aukeran herriko gazteek

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosako gazteek ez dute uda honetan aspertzeko arrazoirik izango, izan ere, Topaguneak antolatuta hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute uztailean zehar. Ekitaldi hauek urtero ikasturte amaieran antolatzen dituzten Uda Gaztea programaren baitakoak dira, eta uztailaren 4tik uztailaren 13ra antolatu dituzte.

Ekitaldi gehienak arratsaldean izango dira, «izan ere, gazteek udan ere goizez hainbat akribitate izaten dituzte», diote Topaguneko hezitzaileek. Horietako bat, gainera, egun osoko irteera izango da, hain

zuzen ere, Lekunberrira egin-goz dute irteera. Bertan zaldiz ibiltzeko aukera izango dute gazteek, eta igerilekura ere joango dira. Beste irteerei dagokionez, paintball egingo dute Lasturren, Donostiako irlara joango dira, karts-etan ibiliko dira Miarritzen eta eskalada egingo dute Donostian. «Ekitaldi hauek guztiak gazteen proposamenetatik aukeratu ditugu», azaltzen dute.

Bada, animatzen diren gazteek datorren astelehena, uztailaren 2a izango dute izena emateko eguna. 17:30etik aurrera Topagunean bertan, [topatolosa@euskalherria.org](mailto:topatolosa@euskalherria.org) heñbidean edota 943 67 03 88



Mikel Rezola eta Enara Zuriarrain Topaguneko hezitzaileak. I.T.

zenbakira deituta egin ahalko dute. Ordaindu beharrekoari dagokionez, Lasturrera paintballen jolastera joateko 15 euro ordaindu beharko dira; Donostiako irlara joateko 4 euro; Lekunberriko irteerarako 15 euro; Miarrizera karts-etara joateko 12 euro; eta Donostian eskalada egiteko, berriaz, 8 euro ordaindu beharko dira. Gainerako ekintzak doan izango dira, eta Lekunberriko egun osoko irteeraren kasuan,

gurasoen baimena beharko dute gazteek.

Topagunean, berriaz, henna tailerra egingo dute neska saharar batekin; *Little miss sunshine* filma ikusiko dute, eta azken ekitaldia lunch karaokea izango da.

Bestalde, herenegun, urtero bezala, Arcachonera irteera egin zuten Topaguneko gazteek. Denera, 40 lagun inguru elkartu ziren eta guztiak ere «oso ondo» igaro zuten eguna.

## UDA GAZTEA ▶

Hiru ekintza Topagunean bertan izango dira, eta besteak kanpoan. Ekintzetako bat egun osoko irteera izango da.

### EGITARAUA

**Uztailak 4, Asteazkena.**  
Paintball Lasturren.

**Uztailak 5, Osteguna.**  
Donostiako Santa Clara irlara irteera.

**Uztailak 6, Ostirala.**  
Henna tailerra Topagunean.

**Uztailak 7, Larunbata.**  
Lekunberrira egun osoarako (zaldiz ibili eta igerilekura).

**Uztailak 10, Asteartea.**  
Zinema Topagunean.

**Uztailak 11, Asteazkena.**  
Karts-ak Miarritzen.

**Uztailak 12, Osteguna.**  
Eskalada Donostian.

**Uztailak 13, Ostirala**  
Luncha eta karaokea Topagunean.

GIZARTEA ▶

## Gazte Forum programako irabazleen bideoa ikusgai, gaur Kultur Etxean

Tolosako gazte talde batek 'Mundua' izeneko lanarekin irabazi du

ERREDAKZIOA

Gaur, 17:30ean, Kultur Etxean bideo emanaldia izango da ikusgai. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Diputazioako Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarte-ratze Departamentuak eta Hezi Zerbitzuek antolatutako Gazte Forum 2006/2007 programaren lehen edizioa irabazleen bideoa emango dute.

Edizio honetako irabazlea Tolosako Udako Gizarte Zerbitzuen Gizarte-Heziketako Ekintzak nerabeekin derituz programan, Nura Gizarte Elkartek kudeatzen duen programan, alegia, parte hartzen duen gazte talde bat izan da.

*Mundua* izena duen bideo irabazleaz gainera, beste bideo batzuk ere proiektatuko dituzte. Hain justu, lehiaketan parte

hartu duten beste herri batzuetakoak. Ekitaldi berean, irabazleak (gazteak eta kale hezitzaileak) omendu eta lunch txiki bat eskainiko dute.

Gazte Forum programa gazteekin (11 urtetik 18 urte bitartekoak) lan egiten duten Gipuzkoako gizarte hezitzaile taldeek parte hartzeko programa bat da. Hain zuzen ere, honetan datza ekimen honek: taldeekin



Gazte Forum programan irabazlea izan den Tolosako taldea. HITZA

edo koadrilekin garatzen ari den heziketa prozesuaren barruan ate bat zabaltzea beraien errealitate eta intereseko gaiez

hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko bideo baten bidez, gehienez 10 minutuko iraupenarekin.

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
[tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TRIATLOIAK ▶

**Itxaso Leunda garaipenaren ateetan geratu da Donostian**

Bizikletan partzialik onena egin ondoren, 23 urtez azpikoetan irabazle izan zen

ERREDAKZIOA

Sprint distantziako triatloia jokatu zuten igandean Donostian. XXII. edizio honetan 1,5 kilometro igerian, 40 bizikletaz eta 20 korrika egin behar izan zituzten parte-hartzaileek. 500 kirolarik hartu zuten parte, eta horien artean izan ziren Tolosaldeko Triatloi Taldeko kideak.

Emakumezkoetan, hasieratik Marina Damlaincourt (Canal Isabel II) madrildarra izan zen nagusi, lehen trantsizioan bigarren zihonari bi minutu baino gehiagoko aldea atera ziolarik. Baina bizikletako saioan istripi larri bat izan ondoren lasterketatik at geratu zen. Orduan, lasterketa buru Itxaso Leunda hernialdetarra geratu zen, oinezko saiora arte. Azkenean, gutxiagatik baina ez zuen maila absolutuko garaipena lortu. Igeri eta bizikletako saio izugarri baten ostean, bera izan zen korrika hasten lehena. Bizikletan partzialik onena berea izan zen. Lasterkakoan zortzigarren kilometroa sartzeraz zihonanean Ana Casares kantabriarrak harrrapatu zuen, eta lehia gogorrean murgildu ziren bi kirolariak.

Azkenik, sailkapen orokorrean bigarren geratu zen Donostiako proban, eta lehenengo, 23 urtez azpikoetan. Emaitza hauek adierazten dute Euskal Herriko triatloiarari onenetakoa dela eskualdekoa, aurtin jokatu dituen proba guztietan podiumean egotea lortu baitu. TTTko beste hainbatek ere hartu zuten parte, besteak beste Alberto Vaquero, Jose Luis Izagirre, Iñaki Insausti eta Xabier Beldarrainek.

ZUZENKETA ▶

Atzo, Tolosandblues jaialdiaren inguruan argitaratutako albistean datu bat ez zen zuzena: THCren kontzertua, gaur 23:00etan izango da Fronton kafetegian, eta ez 22:00etan.

GIZARTEA ▶

**Alde Zaharrean erosisiz gero pintxo eta ardo kopa opari, bihar**

Ezpeleta eta Alde Zaharrak dendak elkarlanean jarritako egitasmo berria da hau, Alde Zaharra sustatzeko helburuz



Aurkezpenean, ezker-eskuin: Mikel Zubiria, Iurre Peñagarikano eta Pedro Tolosa. E. EZEIZA

ERREDAKZIOA

Alde Zaharreko dendetara hurbildu eta bide batez, inguruko tabernetan pintxo bat dastatzeko egun aproposa izango da biharkoa. Izan ere, Tolosako Alde Zaharra dinamizatze eta ostalaritza sustatzeko antolatutako ekimenen baitan, Alde Zaharrak dendak eta Ezpeleta ostalaritza elkarrekin elkarlanean egitasmo berri bat antolatu dute egun hauetarako.

Gaur arratsalde eta bihar goiza bitartean, Alde Zaharra dendak elkarteak osatzen duten 170 saltokietan zerbait erosten dutenen artean txartel batzuk banatuko dituzte. Hauetatik 2.500etan saria egongo da, Ezpeleta elkarteak edozein tabernetan pintxo eta kriaentza ardo bat hartzeko aukera, hain zuzen ere. Denera 17.000 txartel banatuko dituzte erosiileen artean, eta hauetatik 2.500ek izango dute saria. Txartel sarrituetan

azalduko da Ezpeletako zein tabernetara jo behar duten pintxo eta kopa ardo dastatzera. Taberna bakoitzean bertako berezitasunen artean aukeratu ahal izango dute irabazleek. Honi laguntzeko Bodegas Riojanas, Puerta Vieja ardo ondua oparituko dute Ezpeleta-koek. Txartelak gaur arratsaldean hasiko dira banatzen Alde Zaharrak dendak elkarteak erosi-letuetan. Hauetan bakoitzak erabakiko du zein modutan ba-

natu txartelak. Hau da, egindako gastuaren arabera, edo saldatutako produktu kantitatearen arabera. Denda bakoitzean 100 boleto inguru banatuko dituztela. Dena den, pintxo eta ardo larunbat goizean kontsumitu beharko dute irabazleek. Era berean, Ezpeletako arduratuko dira kaleetan giroa jartzeaz.

Lehendabiziko aldian, azken legealdian sortu diren Alde Zaharra dendak eta Ezpeleta ostalaritza elkarteek ekintza bateratu bat antolatzen dutela. Iurre Peñagarikano Tolosako zinegotziaren esanetan, «egitasmo honek erakusten du, denok elkarlanean jarraitu behar dugula Alde Zaharra bultzatu eta sustatzeko». Behin eta berriz azpimarratu zuelarik elkarlanean indarra.

Bi urte daramatza Alde Zaharrak dendak elkarteak inguru horretako komertzioak sustatzeko ekintza ezberdinak antolatzen. Hori dela-eta Pedro Tolosa elkarteak ordezkariak agertu zuenez, «pentsatu genuen, Ezpeletakoekin hitz egin ez gero, eta elkarrekin zerbait antolatu gero, eragin gehiago izan zezaketela egitasmo hauek».

Antolatzaileen esanetan, «aukera ederra da beste behin ere Tolosa eta bere gastronomia, merkataritza eta tradizioaz gozatzeko». Bestalde, bihar-ko egunari amaiera emateko Tolosandblues jaialdiaren baitan hiru kontzertu izango dira. Alde batetik, 20:30ean Jean Mari Ecay Quartet izango da Plaza Berrian. Ondoren, 22:30ean Angela Brown eta Blues Band entzungai izango dira Plaza Berrian. Jaialdiarekin amaitzeko Joan Pau Cumeillas Blues Band eta Antonio Serranok kontzertua eskainiko dute 00:00etan Fronton kafetegian.

**PATXINE JATETXEA**  
Gure berezitasuna.  
Euskal sukaldaritza eta etxeko postreak  
Errementari kalea, 1 • 20159 ASTEASU  
Tel.: 943 69 10 25  
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE

**KABELA**  
Okidologia - Kafetegia - Gozotegia  
Zai gaituzue!  
Jai zoriontsuak pasa herritar nahiz kanpotarrei!  
Nagusia, 3 - Tel. 943 69 64 05  
ASTEASU

**hitza**  
Praktikak HITZAn irailtik aurrera  
Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunizazioa lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua  
Curriculum-a bidali helbide hauetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - atzea • 20400 TOLOSA  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
(uztailaren 15a baino lehen)

**Iturri-Ondo Jatetxea**  
BETIKO SUKALDARITZA  
menuak - kartak - parrilak  
Tel.: 943 69 13 31  
20159 ASTEASU (Gipuzkoa)



ASTEASU ▶ SAN PEDRO JAIK

# Jaien lehen egunean txikienak egin dira herriko jaun eta jabe

Gaur koadrilek euren eguna ospatuko dute, horretaz gain, Asteasuko XII. Dantza Solteko Txapelketa jokatu dute



Frontoian haur parkea egon zen txikientzat egun guztian; indarrak berreskuratzeko berriz, bazkaria. A.I.

## ASIER IMAZ

Asteasun atzo hasi ziren San Pedro jaiak. Lehen eguna, Haurren Eguna izan zen eta ekitaldi gehienak euren gure zuzendua egon ziren. Goizean, txikiek haur parkean jolasteko aukera izan zuten pilotalekuan. 14:00etan haur bazkaria burutu zuten herriko plazan, berriro ere pilotalekura itzuli aurretik. 20:30ean, Txupinazoa jaurtiki ondoren, Sorginen Jaitsiera eta pregoia irakurri ziren. Eguna amaitzeko, frontoian bertso saioa egin zuten, Lizaso, Peñagarikano, Elorza, Maia, Xabier Paya eta Zubialde bertsoariariek. Ondoren Trakets taldearen txanda iritsi zen lehen egunarekin amaitzeko. Igandera arte jaiak aurrera jarraituko dute.

## EGITARAUA ▶

### GAUR, KOADRILEN EGUNA

**10:00.** Txistularien Diana.

**11:15.** Meza Nagusia.

**Ondoren.** Hamaiketako eta Asteasuko Pelota Eskola Txapelketako finalak.

**14:30.** Koadrilen bazkaria herriko plazan.

**17:30.** Kanika Txapelketa.

**18:30.** Asteasuko XII. Dantza Solteko Txapelketa.

**19:30.** Asteasuko musika kalejira.

**21:30.** Herri Afaria.

**Ondoren.** Estanga anai-arrebak trikitalariek Erromeria.

**00:00.** Zezensuzkoa eta su festa. Mulambo taldearekin batukada kalejira.

### BIHAR, JUBILATUEN EGUNA

**11:15.** Meza.

**Ondoren.** Aitzondok herriko jubilatuei eskaintzen dien hamaiketako burutuko da.

**Eguerdian.** Herri kirolak: Alkizalete anaiak aizkolan ariko dira eta Otaegi eta Flores II.a harri-jasotzaileak.

**14:30.** Jubilatuen bazkaria.

**17:00.** Asteasuko XXI. Mus Txapelketa Herrikoia.

**18:00.** Zezen txikiak, ponyak.

**19:00.** Haur antzerkia, Kukubiltxo taldearen eskutik.

**23:00.** Diskofesta.

ELKARRETARATZEAK ▶



Bi eskualdetako hainbat herritan egingo dira elkarretaratzeak. N.U.

## Etxeratek deituta, gaur elkarretaratzeak

Gatza zornotzarra eta errepresaliatu guztiak etxeratzako, «presioa» egitea eskatuko dute

A. IMAZ

Gaur arratsaldean, Etxeratek deituta elkarretaratzeak egingo dituzte bi eskualdeko hainbat herritan. 19:30ean, Tolosa, Ibarra, Alegia, Amezketa eta Anoetan burutuko dituzte. 20:00etan berriz, Lizartza, Ikaztegieta, Villabona, Zizurkil, Asteasu, Aduna eta Leitzan elkartuko dira *Euskal errepresaliatu politikoa* etxera/leloarekin bat eginez.

Hilabetero egin ohi den bezala, Etxeraten izenean idatzi bat irakurriko diete bertara gerturatzeko direnei, elkarretaratzearen amaieran. Mezuan, «konpromisoak indartzeko» deia luzatuko dute eta «eskubide urraketak salatuz, egoera ezin larriago honi aurre egiteko indarrak biltzen jarraitu beharra» azpimarratuko dute.

### 'Gatza', «egoeraren islada»

Elkarretaratzeetan, Jose Mari Sagardui, *Gatza*, preso politikoen atxilotetaren urteurrena gogoratuko dute, «*Gatza* eta bere senideak jasaten ari diren etengabeko eskubide

urraketak ez dira salbuespen, gure senide preso politikoen aurka indarrean diren salbuespen neurrien erakusgarri baizik».

Uztailaren 8an, 27 urte beteko dira *Gatza* zornotzarra (Bizkaia) atxilotu zutenetik. Etxeratek informatu duenez, «Komisarian bortizki torturatu izan zen. 27 urte beranduago, espetxeratuak diren gure senide berriak torturatuak izaten jarraitzen dute. 27 urte hauetan, hilabete eskasez izan dute *Gatza* Euskal Herrian. Beste denbora guztian etxetik zein baino zein urrunago dauden kartzelatan izan dutelarik, beti baldintzarik gogorrenetan». Egun, esaterako, Jaenen dute «20 ordu argi naturalik sartzen ez den ziegatxoan giltzaperatuta». Gaineratu dutenez, «estatuek preso politikoen biziei prezio politikoa jarri diete, beraien nahietara makurtzen ez direnez suntsitzeko hautua egin dute». Horregatik «ez dituzte askatzen *Gatza*, preso gaixo edo zigor osoak betetakoak. Gure senide preso politikoa ez dituzte beraien eskubideen jabe izanik Euskal Herrirantz, krudelkerian, giza sufrimenduan ardatzutako salbuespen neurrietan» dituzte jakinarazi du Etxeratek.

Hala, «presioa» egiteko deia zabaldu dute: «Bi estatuko buruzko informazioa bilatzeko aukera erraza izango duzu: 2007ko Udal hauteskundeetan aukeratu alkate berriei egindako elkarrizketak, eskualdeetako musika taldeak...

## BANAKETA ENPRESA batek:

- Banatzaileak behar ditu, Hernani aldean.
- Bestalde, udako ordezkariak egiteko banatzaileak behar ditugu, bereziki Oarsoaldean, Bergaran, Zumaian eta Busturian.

### Lan-baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Egunean 4 ordu.
- Bi aste lan, bat jai.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

### Ezinbestekoa da autoa izatea

Deitu lehenbailehen telefono honetara 943 30 43 41

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Etxebizitza.** Berrobin 3 logelako etxebizitza salgai. Eguzkitsua, bista ederrak, atiko gela eta trastelekua. 34.800.000 JM 657 77 00 85.

### GALDUTAKOAK

**Giltzak.** Giltza batzuk galdu dira Rondilla kalean, giltzatak elastiko morearekin. 647 319127.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Begiradak.** Atal berri honetan, gai zehatzei buruzko informazioa bilatzeko aukera erraza izango duzu: 2007ko Udal hauteskundeetan aukeratu alkate berriei egindako elkarrizketak, eskualdeetako musika taldeak...

## ALBIZTUR-BIDEGOIAN ▶ POLITIKA

Ramon Lasa da Albizturko alkate berria, Albizturko Herria plataforma osatu ondoren; alkate gaztea da baina aspaldi ezagutzen du Udaleko funtzionamendua. Juan Ugarte, Bidegoiango alkate izango da berriz hurrengo lau urteetan EA alderdiarekin, hainbat proiektu martxan jarritz NEREA URBIZU

## RAMON LASA ▶ ALBIZTURKO ALKATEA

## «Udal batek ez luke etxebizitza librerik bultzatu behar»

Etxebizitza da herriko erronkarik handiena

Ramon Lasa (Albiztur, 1970) Albizturko alkate berria da. Duela 16 urte udaletxean zinegotzi izan zen 8 urtez, eta baita alkateorde ere; beraz, ez dira berriak Udaleko kontuak Ramon Lasarentzat.

### Nola joan dira azken lau urteak?

Argi dago legealdi batean ez duela denbora askorik ematen gauzak egiteko; gauzak mugitzen hasten direnerako denbora behar da, eta ez da nahi den guztia egin ahal izaten. Nire ustez, ondo joan dira lau urte hauek.

### Lanean hasi zarete dagoeneko?

Bai, hasi gara. Arazo handiena zera da: arau berriztatzaileak aldatzea, baina poliki-poliki

hasi gara. Lan asko ematen du, eta ondo egitea zaila da, denek gustura ez da inoiz egiten. Oso luze joango da baina hasi gara: etxebizitza tasatuak edo babes ofizialekoak egitea adibidez, zaila da. Ez da erraza adostasunetara ailegatzea; arrazoiarekin, norberak bereari eutsi behar dio, normala da, baina ez dago eraikitzeo lurrik bestela. Nire ustez, Udal batek ez luke etxebizitza libreak bultzatu behar. Guk babes ofizialeko bidetik jarraitu nahi dugu. Bestalde, baserritarren beharrei modu berezian aurre egin nahi diegu.

### Gustura osatutako taldearekin?

Bai, orekatuta dago. Gainera, emakume asko daude, lau, ze-

hazki, eta hiru gizonezko. Azken legealdian emakume bat bakarrik egon zen. Adinari dagokionez, gazteenak 22 urte ditu, eta zaharrenak 45 urte inguru.

### Udalean bakarrik zaudete: oposiziorik ez izateak zer suposatzen du?

Nire ustez, oposizioa ona da: alde onak eta txarrak ditu. Argi dago agintean dagoenak ezin duela dena ondo egin. Oposizioak momentu batean zuzentzen lagun dezake. Zaldibiko kasua, adibidez (4 eta 4 daude) gustatzen zait; akordioetara iritsi behar dira eta baten eta bestearen gauzak kontuan hartu behar dira.

### Zein dira zuen asmoak lau urte hauetan?



N. URBIZU

Santa Marina auzoko bailarara ura iritsiko da: galdeketa egin da han eta erantzunaren ondorioz, ur biltegi berri bat egin nahi dugu bertan, ura han bertan zabaltzeko. Proiektu hori onartu egin dute.

### Eta turismoari begira zer bait egin daiteke?

Nire ustez, babarrunari zuku gehiago atera beharko genio-

ke. Tolosa hiria bestean generoaz gehiegi aprobetxatzen dela iruditzen zait. Berez, Tolosako babarrun oso gutxi dago. Babarrun lehiaketan, adibidez, herri askotakoak ikus daitezke, baina Tolosako bat edo bi, asko jota. Begiratzen hasten baldin bazara, gainera, alea bera, itxuraz bakarrik oso diferentea da herri batekoa edo bestekoa. ◀

## JUAN UGARTE ▶ BIDEGOIANGO ALKATEA

## «Arau berriztatzaileen lehenengo pausoa onetsi dute»

Onartutako proiektuen artean liburutegia eta ludoteka daude

Juan Ugarte (Bidania, 1966) 10 urte daramatza alkate EA-ren alderdiarekin. Izan ere, alkateorde zegoen, eta alkatea hil egin zenez, berak hartu zuen kargua 1997an.

### Nola joan dira azken lau urteak?

Balantze ona egiten dut. Frontoi inguruko urbanizazioa egin dugu urte hauetan, gehi etxebizitzak. 2004an Euskal Bizikletaren hasiera eta bukaera hemen izan zen, eta eguneko zentroa inaguratu genuen.

### Zein dira orain helburuak?

Liburutegia eta ludoteka egin behar ditugu, eta esleitura dauka. Balio anitzeko zentrokoi hirugarren pisuan izango dira, eta aste honetan edo datorrean inaguratu dute, eta lanak hilabete honetan edo hasiko dituzte ziurrenik. Haurtzainde-

giaren proiektua ere eskatu dugu, etxebizitza tasatuen ondoan, baina urte bat pasa beharko da hasten direnerako. Oraindik oso urruneko kontua da, baina eraikitzen jarraituz gero, Goiatz aldera izango da. **Zer moduz doa arau berriztatzaileen kontua?**

Lehenengo pausoa onetsi dute: aurki Gipuzkoako Boletín Ofizialean aterako da. Bertan, alde industrialean, industria gunea handitzeko lursailak kalifikatzeko asmotan gaude. Bestalde, arau berriztatzaileetan lehenago lursail partikularretan, adibidez, 6 etxebizitza hiru biko baziren, orain eskatutako arau berrietan hiru biko horiek eta bloke bat laukoa (azken hau, ahal dela herriko gazteentzat, tasatua), bideragarria izateko eskatu

dugu. Honek mesede egingo lioke lursailko jabeari eta herriko gazteei. Ez bada honela, Udalak erosi behar du lurra, edota lursailko jabearekin nola edo hala konpondu.

### Etxebizitzak, beraz, tasatuak?

Duela 8 urte egin genituen babes ofizialekoak, eta esperientzia oso txarra izan genuen, herriko gazteek hartu beharrean kanpokoentzat izan zelako. Arau berriztatzaileetan Eusko Jaurilaritzak 72 etxebizitza egiteko aukera sartzen uzten ziguten, eta 84 utzi dizkigute azkenean, baina tasatutakoak dira. Batzuk bifamiliarrak, familia bakarrekosteak besteak eta lau etxebizitzatakoak ere.

### Oposizioan ez duzue inor.

Hala hobe, dudarik gabe. Niri otu zait EAJrekin eta HBrekin



N. URBIZU

egotea, eta adostasunetara iristea zailagoa zen. Adibide gisa, industria gunea eta Bidania lotzen dituen espaloia egin nahi nuen, baina ezin izan ge-

nuen orduan, oposizioaren erantzuna ezezkoa izan zelako. Hurrengo legealdian, berriz, Euskal Herritarroekin ez zen arazorik izan. ◀

**TXORTU**  
Lantegiak, S. Coop.  
Piezen mekanizaketa eta Muntaketa  
Industri poligonoa, A area, 9.zbk  
Telf.: 943 69 17 78  
Faxa: 943 69 33 87  
ASTEASU

**TRANSPORTES IRVRZYN SL**  
Asteasu industrigunea, A area 3.zenbakia  
Tel.: 943 69 42 03  
Faxa: 943 69 44 11  
20159 ASTEASU  
irurzun@irurzun.net • www.irurzun.net

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 29a, ostirala ▶ V. urtea

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea.** Jon Mujika. **Publizitatea.** 661 678818. tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa.** 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info. **Vilabona-Aizt.** 687 410022. vilabona-aizt@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaidea.** 687 410022. anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info. **Ibarraldeia.** 687 410032. ibarraldeia@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea.** 687 410034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info. **Leitzaldeia.** 687 410118. leitzaldeia@tolosaldeko-hitza.info.

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **21** hotzera **15**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

**HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK**

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baiñarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA** **902 82 02 01**  
 (balantzak argitzeko, harpidetuen egiteko...)

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Leitza.** Bihar, Zaldi Eguna Ingurarteko zelaian: 09:30ean, Leitzatrek, poniak, perraketa, zaldi erakusketa; 13:00etan, zaldi proba; 14:00etan pikatzaile eta bere zaldiaren prestaketa; 14:30ean bazkaria. 16:30etik aurrera ere ekitaldi ugari (western erako heziketa,...).  
**Tolosa.** Tolosandblues jaialdiaren barruan, THC ariko da Fronton kafetegian, 23:00etan.  
**Tolosaldea.** Aduna, Zuzurkil eta Villabonako emaleek odola emateko aukera izango dute anbulategian 18:30etik 20:30era.


**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.  
 ▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Gay, Lesbianen eta Transexualen eskubideen alde**

**TOLOSALEA-LEITZALDEA ▶** Gayen, Lesbianen eta Transexualen Nazioarteko Eguna izan zen atzokoa, aldarrikapenerako eguna, hain zuzen ere. Euskal Herrian antolatatu zituzten manifestazioetan «aniztasuna eta aukeratzeko eskubidea» aldarrikatu zituzten. Gurean, esaterako, Villabonako Udalak bat egin zuen egun honetako aldarrikapenekin —irudian, udaletxea—. Halaber, Batasunak, Bilgune Feministak eta EGIk ere bat egin zuten atzoko aldarrikapenekin. ASIER IMAZ



**ZORIONAK**  
**Xabi Urkizar Calviño (Ibarra).**  
 Gaur 3 urte. Aitaboa, amaboa eta familia guztiairen partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Jon Irazusta Aristi (Alegia).**  
 Gaur 8 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

**ZABALA DESGUAZEA**

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
 Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTA

**EBAKI LAN**

**Ondo pasa San Pedroak!!**

Asteasuko Industrialdea B-51 • 20159 ASTEASU (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 693 232 • Faxa: 943 694 372  
 laser@ebakilan.com

**TOLARE-SAGARDOTEGIA**  
 Jatorrizko Sagardoa

**SARASOLA**

Sagardotegia - ASTEASU • Tel.: 943 69 02 83  
 Zumalkardi Baserria - ANOETA • Tel.: 943 65 26 22

**ekainak 30 larunbata**

**Herriko plazan 23:00etan**

**Koti AZKOITIAN**

Antolotzaileak  
 Azkoitiko Udala  
 Azkoitiko tabernariak